

## Numeral eta aditzen arteko konkordantziaz

0. Konkordantzia honi emango zaion irtenbidea ez dagokio, soilik, «batua» deitzen diogun normari, neurri handi batez, hizkuntzari buruzko gramatika berari baizik: hain zuzen, irakasten ari den euskarari eta ematen ari diren azalpenetan, ondorio garrantzitsuak dituelarik, puntu hau zehatz eta mehatz aztertzea komeniko litzateke.

Gaurko irakaskintzan, honelako kontraesanetan jausi gara:

- a) «Nik hamazortzi dut» (*Euskalduntzen I*, 52 orr.).
- a') «Hogei urte ditut» (*Euskara bizitik* (batuaz), I, 66 orr.) edo.
- b) «Hiru edalontzi daude» (*Euskalduntzen II*, 21 orr.), baina.
- d) «Hiru logela du» (*Euskalduntzen II*, 21 orr.), eta.
- d') «Aitak bi arraultze jan du» (*Euskalduntzen II*, 21 orr.), baina.
- d'') «Zeure automobileran lau mutil eramanez dituzu» (*Euskalduntzen III*, 102 orr.).

Alde batetik, a) ta a'), beste aldetik d), d') ta d'') etsenpluetan egitura *bat* izan arren, aditzarekin konkordantzia desberdin bat agertzen da.

Ezin daiteke, nere ustez, honela jarrai, metodo baten aukerak ezin dezake hizkuntzarik alda, ez eta ikaskintzarik kondizionatu.

Dugun nahaste hau, Arantzazuko gomendazio batzuen bitartez azaltzen dela, esango nuke.

Aipatu nahi ditut, bereiziki, 1968.eko Salvador Garmendia-ren bi potentzia hauèk: «Deklinazio»<sup>1</sup> ta «Indeterminazioari datxekon aditza singularrean»<sup>2</sup>. Lehenean irakur daiteke.

«Noiz indeterminazio bat?

(...) 2. garrenik - Numeralekin (...).

Lau etxe erre zaio ... Lau etxeak erre zaizkio (...).

Bost liburutan ikasi dut ... Bost liburuetan ikasi dut (...)<sup>3</sup>.

1 S. GARMENDIA, *Deklinazio*, in "Euskera", 1968, XIII, 151-161 orr.

2 S. GARMENDIA, *Indeterminazioari datxekon aditza singularrean*, in "Euskera", 287-290 orr.

3 S. GARMENDIA, *Deklinazio*, 160 orr.

0.1. Izen-sintagmari dagokionez, /lau etxe/ ez dela /lau etxeak/ eta /bost liburutan/ ez dela /bost liburuetan/ bistan dago; baina aditzarekin konkordantzia —eta proposatuarekin ez nago ni konforme— beste mota bate-tako harremanetik sortzen da; harreman horri dagokionez, aipatutako bigarren etsenpluak ez dakarkigula ezer azpimarratu nahi dut: zeren, nahiz /bost liburutan/, nahiz eta /bost liburuetan/ izan, aditzak /ikasi dut/ ez du ezer ikustekorik.

Hortaz eta aurrerago joan baino lehenago, izen-sintagmaren barruko harremanak (intra - sintagmatikoak) eta esaldi baten barruko harremanak bareiztu beharrezkoa da. Izen-sintagma barruan, numeral bat sartzen denean, bi egituren errealizazioak gerta daitezke: *Num-Izen-D.G.* = Determinante Jenerala, eta *Num-Izen-ø*.

0.2. Aditzarekin konkordantziari buruz, S. Garmendia-ren bigarren ponentziak hau dino: «Frase bat indeterminadoa dalarik, aditza, berboa, singular dalakoan doa»<sup>4</sup>.

Inziso gisa, galdetuko nuke zer den «frase indeterminadoa». Hain zuzen, edozein hizkuntzatan, ezer «determinadoa» izaten bada, hori frasea da: hasten eta amaitzen delako, frasea mugaturik baitugu. Ponentzia horretan, gehiago irakur daiteke: «Numeralekin, gutxi asko, galdurik edo dago Bizkaia-n, Gipuzkoa-n eta, gure ustez, Lapurdi-n ere bai (...). Adibidez, guretzat guttiz arkaiko dan honelako asko entzuten da eskualde hartan: «bi ardi galdu da mendian». Bai Gipuzkoa-n ere; «zenbat pagatu duzu?» «Bost pezta pagatu dut»<sup>5</sup>.

Hemen, berriz, azkenengo etsenpluak (eta Bizkaia-n ere entzun daiteke ...) ez duela baliorik esango nuke: ordaintzen duguna *prezio bat* da, hain zuzen; horrez gainera, «bost» kasuan, txanpon *bat* erabil dezakelako, *ale bat* ager lekiokete hiztunari.

Oker ez banago, «bost» ordez, «hamairu» edo «hamalau» erabiltzekotan, aditza singularrean guttiago entzuten da.

Ta S. Garmendia-k aurrerago azaltzen digu berriro: «orazioa indeterminadoa denean, berboa singularrean eman eta kito!»<sup>6</sup>.

Hori dela ta, Euskalduntzen-en egileak, nahiz eta jakin /hamazortzi/ «hamazortzi» direla. «Nik hamazortzi urte dut» eskeintzen digute.

S. Garmendia-k dinoenez, asmo hau Larresororengandik hartu du<sup>7</sup>.

4 S. GARMENDIA, *Indeterminazioari...*, 287 orr.

5 S. GARMENDIA, *Indeterminazioari...*, 287 orr.

6 S. GARMENDIA, *Indeterminazioari...*, 287 orr.

7 S. GARMENDIA, *Deklinazio*, 159 ta 161 orr.

Bestalde, Aita Villasante-ren *La declinación del vasco literario común* liburuan, puntu hontaz, beste horrenbeste irakur daiteke <sup>8</sup>. Ta lan hau aipatzen nagonez gero, ezin ixildu kontraesan bat aurkitzen dela liburuan bertan: hain zuzen, aurrerago AXULAR-en erreferentzia hau agertzen baita: «Akhusatu zuten bi lekhukok» <sup>9</sup>. Ikusten denez, Axular-en etsenplu honetan, nahiz eta ezena «lekhuko» determinante gabekoa izan, aditza «zuten» da, hau da PLURALA.

1. Nere hipotesian, lehen aipatutako kasu bietan (Num-Izen-D.G. Num-Izen-Ø) «bat» etik aurrera numeralak dakarren sintagma PLURALAK dira; hortaz, esaldiak aditzarekin konkordantzia eskatzen duenean aditza ere pluralean joan behar luke, noski. Hipotesi hau argitzeko, bide honi jarraituko diot.

1.1. Arantzazuko ponentzietan sarritan aipatu izan ziren euskara-gramatika batzuk (hau da, sortaldeko zenbait euskalkirenak zeren, badirudi, «pekatua» Bizkaia-n sortzen dela beti), berriz ikusi ditut eta.

— J. P. DARRIGOL (*Dissertation...*, 1827) «la (sic) monosyllabe *bi* exprime nettement un *pluriel* (hau, neuk azpimarratua) et qu'elle s'identifie sans équivoque avec le mot *etche* et avec les adjectifs qui l'accompagnent, je ne leur attache aucune autre marque de quotité» <sup>10</sup>.

Aurrerago, egileak dino: «le verbe s'accorde avec son sujet en nombre et en personne». Ondorioa: «bi» numeralak, egile honen eritziz, plurala izanez gero ta delako «en nombre» konkordantzia izanik, aditza ere PLURALA izan behar, esaldiaren konkordantziak eskatzen duenean.

— L. GEZE (*Éléments de Grammaire basque —Dial. souletin—*, 1873): egileak ematen dituen etsenpluen artean, ez dago arrazoirik delako konkordantzia egiteko. Baina, Gèze-k ez du aipatzen aditza singularra izan behar denik.

— P. LAFITTE (*Grammaire basque*, 1944). «Nous verrons que l'on pratique la déclinaison indéfinie avec les adjectifs indéfinis, numériques et interrogatifs»: «Hiru ardik ez dute horrenbeste jaten» <sup>11</sup>. Etsenplu honetan, ikusten da nola, nahiz eta izen-sintagma determinanterik gabe erabili, aditza pluralean doa.

<sup>8</sup> Fr. Luis VILLASANTE, *La declinación del vasco literario común*, pp. 25-26. Oñate, 1972.

<sup>9</sup> Fr. Luis VILLASANTE, *La declinación del vasco literario común*, Ax. 249, p. 49, cita 1 zehaztasun gehiagorako, ikus. Aita L. VILLASANTE, *Axular-en Hiztegia* "lekhuko" = Akhusatu zuten bi lekhukok abadearen artzinean. Oñate, 1973.

<sup>10</sup> DARRIGOL, *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, p. 43. Bayonne, 1827.

<sup>11</sup> P. LAFITTE, *Grammaire basque*, Navarro-labourdin littéraires, p. 74. Bayonne 1944.

1.2. Beste hizkuntza askotan bezela, gurean ere, numeralak banaketa bi dituzte, esaterako: /hamar etorri dira/, /hamar neska etorri dira/. Banaketa bietan, lehen esan dudanez, izen-sintagmak determinantea (-a) eraman dezake, ala ez. Banaketa bi hauèk kontutan edukirik, hona galdera: inoiz entzun al daiteke /hamar etorri da/? Euskaldun guztiak ez ote dute esaten /hamar etorri dira/? Hain zuzen, aztertzen ari garen pundurako /Hamar -Aditza/ ta /Hamar -Izen Aditza/ gauza bera da; bien arteko diferentzia sintagmatikakoa delako, aditza lehen kasuan plurala izatekotan, bigarreanean ere plurala izan behar. Bi kasuetan (*Hamar - Aditza* ta *Hamar Iz. - Aditza*), izen-sintagma ta aditzaren arteko harremanak SOLITARITATEZKOAK dira. Eta, hemendik, beste arrazoi bat agertzen zaigu.

1.3. Zeren, /hamar daude/, /hiru etorri dira/ tab. esan ahal badugu, erabilkera honek hau adierazi digu: diskurtsuan, numeralak, hutsik, *izen-sintagma* bat da; *berez*, *mugaturik delako* —hobe esanda, *aktualizaturik delako*<sup>12</sup>— mugaegilerik edo determinanterik *ex du behar*. Baina, bereizitasun honek ez du inoiz ere esan nahi aditzarekin konkordantziarik ez duenik; izen-propioak ere, *berez*, *aktualizaturik daude* eta aditzarekin konkordantzia eskatu (Jon eta Miren etorri dira), izen-ordezkoak ere bai eta, gure hizkuntzan «ama», «aitta», «izeko», «osaba», jakina denez eta morfofonologiako erregelak erakutsi didatenez<sup>13</sup>. Aditzarekin konkordantzia *esaldiak* —esaldiaren harremanak— eskatzen dute, soilik.

Pundu hontaz, azpimarratu nahi dut erabiltzen den «mugagabe» hitzak ez duela ezer esan nahi. Aspalditik Charles BALLY-K esan zuenez: «la notion grammaticale d'indéfinie est donc équivoque en grammaire»<sup>14</sup>. Ta «mugagabe» hitza erabiltzen duten lagunak, *-a* determinante gabeko izenari «indeterminadoa» deitzen diote; galdera bat egin nahi nieke, baina: «mugagabe» hitz horretan ze motariko indeterminazio datza? ... zenbatasunari dagokiona?, kualitateari dagokiona? biak?. Mugagabe hitz hori oso nahasgarri iruditzen zaidanez gero eta «determinazio»-arekin lotuta dagonez gero, honen ordez «aktualizazioa» erabiliko dut.

1.4. Bistan dago, orduan,

a) aktualizatzaile guztiak ez dakarkigutela izenari buruzko informazio berdinek;

<sup>12</sup> ikus daiteke Karmele ROTAETXE, *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Cap. 3.02.0, 3.02.1, 3.02.2. L. Zugaza, Durango, 1978.

<sup>13</sup> ikus daiteke Karmele ROTAETXE, *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Cap. 3.02.4, 3.02.5, bereiz. 242 ta 250-255 orr.

<sup>14</sup> Ch. BALLY, *Linguistique générale et linguistique française*, 77 orr. Berne, 1965.

b) diskurtsuoa erabiltzen ditugun izen-sintagmàk, diskurtsoko parte direlako, aktualizaturik daudela: hortaz, /lau gizon/, /gizona/, /lau gizonak/, /nahiko lagun/, /ze lagun/, tab., neurri batez edo bestez, aktualizaturik daude, hiztegiaren «gizon» signoaren parean jarrita.

d) aktualizazioaren bitartez, hiztunok «lekutu» edo «zenbatu» egiten dugu la. Ta bideak izan daitezke *kontestua* edo/eta «*signos ad hoc*».

Problemari honela begiraten badiogu, /etxea/, esaterako, lokalizaturik izan-arren, /etxe hau/ esaten dugunean —deixis-en bitartez— zehatzago lokalizatzen dugu. Ta horrenbeste gertatzen da zenbatasunari dagokionez: /nahiko/, /asko/, /gutxi/ signoàk *kuantitate*a adierazten digute; zalantzarik gabe, baina, kuantitateari dagokionez, zehatzik handienez erabiltzen ditugunak *numeralàk* dira, hain zuzen. Horreterako ditugu. Ohartu beharra da, bide batez, kualitatezko ta kuantitatezko aktualizatzaileen arteko konbinaketa batzuk kabitzen direla ta beste batzuk ez (klase berdinak). Horregaitik esan daiteke: gizon biak edo bi gizonak, hiru gizon hauèk tab. Baina agramatikalak dira: /\*nahiko hiru gizon/, /\*ze etxea/ edo /\*edozein gure etxe/.

Bestalde, zenbatasunaren barruan, geuk —hiztunok garenok— adierazi behar dugu *singularitatea*, *pluralitatea* eta *hutsa*. Eta, euskaraz, hurrengo bideak ditugu gutxienez: *bat* (eta *-a*) *singularitatea* adierazteko; *pluralitate*rako *beste numeralàk* adierazten digutena: *bat* eta *bat* = *bi*; *bat* eta *bat* eta *bat* = *hiru*, etab. eta lekuturik (lokalizaturik) erakusten ditugun izenentzat *-g ...k* (gizon-*a-k*); *hutsa* adierazteko *huts* signoa dugu eta, oker ez banago, deitzen diogun *partitibo*aren bitartez ere egiten da (baina honekin, banaketako (distribuzioko) baldintza batzuk kontutan eduki behar dira: esaterako, partitiboa ez dagokiela, inoiz ere, berez aktualizaturik diren signoei —izen-ordezkoak, izen propioak, etab.—).

Hortaz, *hutsa* adierazteko bideak aldean utzirik —urrutira eramango bainindukete—, funtsezko oposizio hau dugu: *Izen bat* ≠ *bi*, *hiru*, *tab. Izen*. Ikusten denez, numeralekin adierazten dugun *pluralitatea* «ale zenbagarriena» (elementos contables, éléments comptables) da.

1.5. Hori dela ta, beste hizkuntza askotan gertatzen denez, gurean ere *pluralitatea* adierazteko bideak bat baino gehiago dira. Ta aipa daitezke:

a) *-a*, determinante jeneralaren bitartez aktualizaturik (eta lekuturik) agertzen diren signoetan, morfologiako marka bat: *gizon-a* ≠ *gizon-a-k*. Asmerketa honegaitik, gero ta argiago dakusat pluraleko egitura honelakoa dela: *gizon-a-k* ta ez *gizon-ak*<sup>15</sup>

15 K. ROTAETXE, Op. cit. Cap. 3.02 eta K. ROTAETXE AMUSATEGI-J. L. DONEUX *Sur un point de morphologie nominale du basque*, in FLV, 9, 1971, 269-290 orr.

b) numeralak: gizon bat ≠ bi gizon, tab.

d) lexikoaren atzizki batzuk: pinu bat ≠ pinadi bat, ta euskarazko atzizkien zerrenda luzea da puntu honetan.

e) badira, bestalde, oposizio-ezetza adierazten digun zenbait singular: ardo, ura, esate baterako (elementos no contables). Ta «pluralia tantum» direnàk singularra adierazten digute nahiz eta pluralean agertu: artaziak, prakak, etab.

*Ondorioa:* plurala eta errealizazioak ez dira gauza bera. Zenbait linguitkazko eskoletan, «kategoria» ta «expresioak», edo «monème» ta «errealizazioak» argi ta garbi bereiztuten dira. Dena dela, plurala adierazteko bideak *batzuk* eta *desberdinak* dira. Hori dela ta, eztabaida honetara ekarri gaitun sintagma (Num-Izen-∅) beste hura (Num-Izen-D.G.-k) bezain plurala da; zeren, biàk daramaten *numeralagaitik* pluralak baitira «bat»-etik aurrera, noski.

2. Azkenez, nere hipotesiaren alde, puntu hontaz linguitkazko eskola desberdin batzuen eritziak dakartzat:

a) Estrukturalisten artean, ikus daiteke: Henri BONNARD «*Numériques ou noms de nombre*» dans «deux sont usés», la propriété *deux* indique clairement le nombre global des éléments de l'ensemble «costume» mentionné<sup>16</sup>.

a') Emilio ALARCOS LLORACH: «los otros numerales dos, tres, cuatro, son también inmóviles en cuanto al número y al género; por lo tanto son pleremas CA». «Inmóviles en cuanto al número», aipatzean, egileak hauxe aiderazten du: «pues requieren plural»<sup>17</sup>.

b) Funtzionalisten artean: Mortéza MAHMOUDIAN: «le pluriel étant nécessairement présent là où figure un numéral»<sup>18</sup>.

Baina, problema argiago jartzen duten lanàk generatibo eskolakoàk dira. Arrazoi bategaitik, dugun problema hau sintaktikoa baita. Ta

d) Jean DUBOIS -ren hiztegian «nombre» kontsulta daiteke, izen sintagmaren kategoria honen formalizazioak ikusteko<sup>19</sup>.

16 H. BONNARD, *Grammaire française*, Principes d'une description structurale. Paris, 1970, pp. 21, 22.

17 E. ALARCOS LLORACH, *Gramática estructural*, según la escuela de Copenhague (con especial atención a la lengua española). 2 ed. Madrid, 1971, Cap. 81, cf. baita ere Cap. 79 nola izen propioàk ere, berez, aktualizaturik daude «expresión cero de artículo o determinante».

18 M. MAHMOUDIAN, *Les modalités nominales en français*. Paris, 1970, 214 orr.

19 J. DUBOIS, et alt. *Dictionnaire de Linguistique*. Paris, 1973 "nombre".

Beste lan asko aldean utzita, hurrengoetan, soilik, geratzen naiz:

d') Jean DUBOIS- Françoise DUBOIS- CHARLIER: numeralak berezkotzat (inerentea) daramate (+ zenbagarri) hatza; «les numéraux portent en soi et comme inhérent le trait (+ comptable)». Gainera, semantikaren hatza da: «c'est un trait sémantique»<sup>20</sup>.

d'') Hau ikusirik, ta Noam CHOMSKY-rengandik hartzen badugu:

«toute l'information employée dans l'interprétation sémantique doit être présentée dans le composant syntaxique de la grammaire»<sup>21</sup>, orduan *Num-Izen-∅* sintagmàk pluralak direlako, esaldi barruan aditzarekin konkordantzia izatekotan, aditza ere PLURALA izan behar.

— *Num-Izen-∅*, inguruan ditugun hizkuntzekin konparatzen badugu (ize-na ere, morfologiaren aldetik, plurala den hizkuntzetan: *deux hommes, two men, dos hombres*, kasuz), euskararen *gizon bi, hiru gizon* ez da hain harritzekoa: gertatzen dena da ekonomiazko erregela errekurrente baten errealizazioa, behin berriro. Alde hortatik, *gizon bi ta ume ederrak* antzekoak dira, joera berbera erakusten dutelako: plurala ez dagokio ale bakoitzari, baizik eta *sintagmak* Gaztelera, ordea, «los niños hermosos» ahozkatzen ditugun hiru plural-marka eraman behar. Baina, jakina denez, marken sistema (banaketa, erredundantzia, etab...) hizkuntza batetik bestera aldatzen da.

3. Bukatu baino lehen, ohar bat: nere lan honetan, kontutan eduki dut aditza singularraren aldeko Aita L. VILLASANTE-ren asmo hau: «... se plantea también el problema de cómo debe ir el verbo que concierta con un nombre que está en caso indefinido. Parece que lo más castizo y típico es que dicho verbo vaya en singular. Hay locuciones populares que así lo hacen y que parecen responder al genio propio de la lengua «Duela zazpi urte» = hace siete años ...»<sup>22</sup>.

Baina, izan ere, «duela X urte» esaldi hau ezin har dezakegu eredutzat: esakera edo expresio *kodifikatua* baita. Eta, hain zuzen, euskaldun berrioi zaila izaten zaigu arrazoi bategaitik: nahiz eta aditza (+ tr.) agertu -du- ez da ergatiborik agertzen. Geneviève N'DIAYE-ren eritzikoa naiz honetan:

«En revanche, il existe des énoncés de ce type (où le complément de ler. degré et l'agent peuvent ne pas être employés) qui comportent l'expression d'un complément de ler. degré, mais dont l'agent n'est jamais explicite. Il s'agit: (1) des expressions d'intempérie; (2) *des énoncés exprimant le temps*

20 J. DUBOIS-Fr. DUBOIS-CHARLIER, *Eléments de linguistique française: syntaxe*. Paris, 1970, 53-54 orr.

21 N. CHOMSKY, *Aspects of the theory of the Syntax*, 1965. Fr. itzulp. *Aspects de la théorie syntaxique*. Paris, 1971, 109 orr.

22 Fr. L. VILLASANTE, *La declinación...*, op. cit. p. 26.

*écoulé entre une action et le point de référence; (3) des locutions comme balio du «il vaut la peine de ...»*<sup>23</sup>. —in (2), neuk azpimarratua—.

Nik neuk Ondarroa-ko /eurixe eiñyau/, /edurre eitten dau/ esaldiei antzeko erantzun bat eman diet<sup>24</sup>.

Hori dela ta, badirudi, «duela zazpi urte» esaldiaren aditza singularra-gaitik, ezin justifikatu numeralekin doan aditza singularra izan beharrik, beti.

*Konklusioak:*

- Esaldia ez da inoiz eta inon indeterminatua izaten.
- Esaldi-barruko harremanak aditzarekin sortzen dira ta sintagma-barruko harremanetatik bereiztu behar dira.
- Zalantzarik gabe, «mugagabe» ta «indeterminatu» hitzak nahasgarriak izan dira arazo honetan. Itxuraz, gure arteko askok ez dute bereiztu beste hizkuntzetan «plano de la expresión» eta «plano del contenido» (esaterako) izenekin bereiztuten dena, aspalditik. Expresiozko formari buruz, guztiok ados gaude *-a* determinante gabeko izenari «mugagabe» dagokio-la; baina *-a* determinante bat izanez (eta determinante jeneral izena me-reizitu arren), kontenidoaren aldetik aktualizatzaile *bat* dugu, beste batzuen artean; ez da bakarra.
- Numeralak, berez aktualizaturik daudelako, soil-soilik erabil ditzakegu dis-kurtsuan (bat, bi, hiru, etab. Aditza).
- Gainera, berez (+ zenbagarri) hatza daramate eta «bat» etik aurrera, nahiz soilik doazenean (bi... Aditza), nahiz izenarekin sintagma eginez, (bi Izen-Ø Aditza) pluralitatea adierazten digute: «bi» signoak pluralita-tea (bat eta bat) adierazten baldin badigu, beste horrenbeste esan daiteke «bi gizon» sintagmari buruz.
- Gure hizkuntzan, solitaritatezko harremanakaitik, NOR, NORK eta NORI-sintagmàk aditzarekin konkordantzia sartzen dira eta, adibidez, /gizon bi etorri dira/, /hamazortzi urte ditut/, /hiru gizonek egin dute/ edo /hiru emakumeri eman diet zure liburua/ esan beharra da, nere ustez.
- Nere hipotesi hau onharturik izanez gero, irakaskintzan erabiltzen diren metodo batzuek berrikusketa bat beharko lukete. Jakina denez, irakas-kintzari (ta zer esaniz ez... hizkuntza baten irakaskintzari) gerta dakioken kalterik handiena kontraesanetan jaustea da. Metodo baten koherentzia derrigorrezko oinarri bat da irakasle ta ikaslearentzat.
- Hori dela ta, euskararen irakats-ikaskintzan ezin inola ere ahaztu; gure ikasleàk, bizi garen giza-kontestuan, indar handiak egin behar dituzte *oso*

23 G. N'DIAYE, *Structure du dialecte basque de Maya*, The Hague. Paris, 1970, 52 orr.

24 K. ROTAETXE, *Estudio estructural...*, 324-325 orr.



NUMERAL ETA ADITZEN ARTEKO KONKORDANTZIAZ

*desberdinak izaten zaizkien egiturak* menperatzeko. Menperatu edo ikasita gero, irakasle batek edota metodo batek ezin inola ere lehen eta berak irakatsitakoa aldatu, ikasleengandik aurrerakadarik txikiena lortu nahi bal din badu.

Karmele ROTAETXE AMUSATEGI  
Distrito Universitario del País Vasco  
Facultad de Filosofía y Letras (Vitoria)

